

13/2026 Irizpena, maiatzaren 4koa: Ofizioz berrikustea atzerriko hizkuntzako profila duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko eskubidearen aitortpena.

Eskatzailea: Hezkuntza Departamentua

Txostengilea: Hugo López López

Interesa: Erabat deusezak diren egintzak: eskubide bat eskuratzeko funtsezko baldintzen eta beharrezko baldintzen arteko bereizketa

Irizpen honen xedeko prozedura: ofizioz berrikustea atzerriko hizkuntzako profila duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko eskubidearen aitortpena.

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren 70/2024 eta 145/2024 ebazpenen bidez onetsi zen espezialitate berria eskuratu duten maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioen behin-betiko zerrenda, baita eskuratu ez dutenena ere, horren arrazoia adierazita. 225/2024 Ebazpenak zuzendu egin zituen aipatutako ebazpenak, eta espezialitate berriak eskuratu zituzten funtzionarioen zerrendatik kanpo utzi zituen atzerriko hizkuntzako profila duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuetarako izendatutakoak, eta adierazitako espezialitateen eskurapena baliogabetu zuen. Baztertutako bi pertsonak gora jotzeko errekurtsua jarri zuten aurreko ebazpenaren aurka, eta partzialki baietsi zitzairen, Administrazioak ebatzi baitzuen 225/2024 Ebazpena erabat deuseza zela, lege ezarritako prozedura erabat alde batera utzita eman zelako [Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 47.1.e) artikulua]; izan ere, 70/2024 eta 145/2024 ebazpenak ofizioz berrikusi behar dira, interesdunei eskubide batzuk esleitzen baitzaizkie, horiek eskuratzeko funtsezko baldintzak bete gabe (APAPELen 47.1 f artikulua).

Nafarroako Kontseiluak behin eta berriz adierazi duen bezala, ofiziozko berrikuspena salbuespenezko ahala da eta, beraz, alegatutako akatsa zorrotz aztertu behar da. Hezkuntza Departamentuak argudiatutako deuseztasunak (aipatutako 47.1.f artikulua) eskubidea eskuratzeko funtsezko baldintzarik ez izatea eskatzen du, eta ezin izanen da horrelakotzat jo beharrezko betekizunak ez egotea edo interpretazio-akatsak egotea (Auzitegi Gorenaren doktrina).

Kontseiluak araudi aplikagarria aztertu du; hau da, 1594/2011 Errege Dekretua, azaroaren 4koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2026 Lege Organikoak arautzen dituen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan beren eginkizunak betetzen dituzten Maisu-maistren kidegoaren irakaskuntzako espezialitateak ezartzen dituen, eta Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 16ko 2551/2011 Ebazpena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 3ko 801/2012 Ebazpenaren eta Irakasleak Hautatzeko eta Hornitzeko Zerbitzuko zuzendariaren urriaren 13ko 264/2021 Ebazpenaren bidez aldatua. Arau horien arabera, espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran eskatzen diren baldintzen artean dago maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioa izatea.

Bestalde, maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legeak (neurriak ezartzen dituenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira) aukera ematen dio Nafarroako Gobernuari atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak sortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan, hezkuntza sistemaren beharrezanaren arabera. Bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuak haxe xedatzen du: «Nafarroako Gobernuak behar diren izapideak eginen ditu, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz hautatzen diren funtzionarioak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sar daitezzen lortzeko». Beraz, argi dago, gaur egun, atzerriko hizkuntzako profila duten Nafarroako irakasle funtzionarioak ez direla sartzen Estatuko irakasleen kidegoetan, zehazki, maisu-maistren kidegoan, eta, beraz, nekez eskuratzen ahalko dituztela kidego horren berezko espezialitateak, 2551/2011 Ebazpenak araututako prozeduraren arabera.

Kontseiluak, beraz, ondorioztatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioei espezialitate berriak aitortzea ordenamendu juridikoaren aurkakoa dela, ez baitute beharrezko arau-babesik; izan ere, atzerriko hizkuntzako profila duten unibertsitateaz kanpoko Nafarroako irakasle funtzionarioek ezin dituzte espezialitate berriak eskuratu, ez baitaude maisu-maistren kidegoan sartuta, eta espezialitate horiek ez baitaude jasota foru legerian.

Gainera, Kontseiluaren ustez, maisu-maistren kidegokoa izatea ez da beharrezko baldintza hutsa, baizik eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren irakaskuntzako funtzio publikoan atzerriko hizkuntzako profila duen espezialitatea eskuratzeko ezarrita ez dagoenez, argi dago maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legearen esparruan funtzio publikoan aritzen diren eta atzerriko hizkuntzako profila duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak betetzen dituzten pertsonak ez dutela

funtsezko baldintza bat betetzen espezialitatea eskuratzeko, hau da, maisu-
maistren Estatuko kidegoetan sartuta egotea.

Beraz, Nafarroako Kontseiluak ondorioztatu du ofizioz berrikusi behar
dela kasu honetan.